



SIICABB 2. FASEA - BBUP-REN INFORMAZIOA KONTSULTATZEKO BILTEGI BAKARRA EGUNERATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3265

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Unai Gobantes Herrero
4.- Kontratazio Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xede dira Kontsultarako Gordailu Bakarraren eta SIICABB proiektuaren I. fasean inplementatutako datu-ekosistemaren jarraitutasuna, mantentze-lan ebolutiboak eta funtzioak zabaltzea (II. fasea). Funtsean, hauek hartzen ditu barne: 1. Erabilera-kasu berriak garatzea eta ezartzea pleguari erantsitako SIICABB II. fasea - Datu-iturriak eta V2 erabilera-kasuen xehetasunak Stratio plataforman.2. Egindako garapen berrien mantentze-lan zuzentzaileak eta ebolutiboak.3. Erabilitako oinarritzko plataforma teknologikoaren (Stratio) laguntza teknikoa eta funtzionamendua. 2.- Bete beharreko premiak Plegu honen helburua da kontsultarako biltegi bakarra ezartzea eta mantentze-lana kontratatzea, erabakiak hobeto hartzeko beharrezkoak diren funtzionalitate eta gaitasun teknikoak eskainiko dituen ekosistema teknologiko bakarra izate aldera. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Ez da lotetan banatuko, egin beharreko garapenak gatazkan sar litezkeelako, bai maila funtzionalean, bai berme-mailan, baldin eta kontrata desberdinek aldi berean jarduten badute garatu beharreko erabilera kasu berberetan.
4.- CPV: 71356200-0 Laguntza teknikoko zerbitzuak.
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	SEIEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO (647.823,00 €), BEZik GABE
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 1.565.105,00 € Kontratuaren balio zenbatetsiak barne hartzen du gauzatu beharreko unitate-kopuruarekiko aurreikusitako % 10erainoko igoera, kontratuaren aldaketatzat hartu gabe, SPKLren 309. artikuluan araututakoaren arabera.	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Aleko prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 92005,22707. - 2026. urtea: 86.956,00 euro, BEZik gabe. - 2027. urtea: 385.867,00 euro, BEZik gabe. - 2028. urtea: 175.000,00 euro, BEZik gabe.	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez. Zenbateko horiek eskainitako prezio-taularen arabera ordainduko dira: - Erabilera-kasuak ekoizpenean ezartzea, hileko ziurtagirien bidez. - Urteko euskarria eta lizentzia 2027ko uztailaren 15etik aurrera ordainduko dira, une horretan amaitzen baita BBUPren egungo lizentzia. Garrantzitsua da adieraztea BBUPren erabakiz ezartzen ez diren erabilera-kasuak ez direla kontratuaren eta plataformaren dimentsionamenduaren barruan fakturatuko, eta, beraz, plataformaren erabileraren eta beharrezkoa den azpiegituraren arabera ordainduko direla. Hau da, enpresak erabileragatiko ordainketa eskaini beharko du.	
8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: HOGEITA BI (22) HILABETE
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ 12 HILABETEKO BI LUZAPEN – 19. Kontzeptua: erabilera-kasuak ezarri ondorengo mantentze-lana (Euskarria eta lizentziak) baino ez da luzatuko.
4.- Berme-epea: 12 HILABETE
5.- Kontratua gauzatzeko tokia: BBUPren instalazioak



D.-KONTRATUAREN EPEA

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin: (353.358,00 euro).

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Kaudimen teknika edo profesionala egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusien (kontratuaren xede diren berberak edo antzekoak) zerrenda aurkeztu beharko da, eta gauzatze handieneko urtean haien zenbateko metatua urteko kontratuaren urteko bestez besteko kopuruaren % 70 edo gehiago izango da.
- BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUKO «BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK, A apartatua» apartatuan eskatutako erantzukizunak, eskakizunak eta esperientzia betetzeko eskatzen diren bitartekoak atxikitzea, profil bakoitzerako.
- Ziurtagiria arau/eredu hauetan:
 - ISO 27001
 - ISO 9001
 - ISO 14001
 - SEN ziurtagiriaren maila ertaina

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Memoria teknika eta gauzatze-metodologia.



BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposatutako soluzioa deskribatzen duen dokumentua, helburura, arkitekturara eta integrazioetara egokitzen dena, eta emaitzak eta epeak ziurtatzeko plana/metodologia (faseak, mugarriak, kalitatea, probak, arriskuak).

Kontratuaren esku jarritako baliabide teknikoak (esleitutako langileen CVarekin)

Konprometitutako baliabideak egiaztatzen ditu: talde-antolaketa, rolak eta arduraldiak. Kaudimena egiaztatzeko eta kontratuari atxikitzeko eskatzen diren esperientzia/ziurtagiriak dituzten langileen curriculumak sartzen dira.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

BBUPren erabakiz ezartzen ez diren erabilera-kasuak ez dira kontratuaren eta plataformaren dimentsionamenduaren barruan fakturatuko, eta, beraz, plataformaren erabileraren eta beharrezkoa den azpiegituraren arabera ordainduko dira.

Erabilera-kasuen zenbatespena bat etorri beharko da plegu teknikoan, 6. puntuan (ERABILERA-KASUAK, B atala, ZAILTASUN-IRIZPIDEAK), zehaztutako zailtasun-mailarekin.

Kasu bakoitzeko, eta adierazitako irizpideei jarraikiz, gehieneko zenbatekoa ezarri da prezio-taula honetako Gehieneko prezioa/unitatea - € zutabearen:

Unitate-kop.		Kontzeptua	Gehieneko prezioa/unitatea - €	Eskaintako prezioa/unitatea - €	Eskaintakoa, guztira - €
		Erabilera-, garapen- eta ezarpen-kasuak			
1	1	CU.DEXGA.213 - Gainezkatze-kotak, maila-zundak eta buiak	12348		
2	1	CU.ST.046 - Energetikoen produkzioa	17577		
3	1	CU.DEXGA.214 – Alerta meteorologikoak	4914		
4	1	CU.EF.015 – Desjabetuen kontabilitate-eragiketak	14742		



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

5	1	CU.DEXGA.093 – Hobiak kudeatzea eta kontrolatzea	10458		
6	1	CU.DEXGA.061 – Ur-kalitatearen ez-betetzeak	4914		
7	1	CU.DEXGA.076 - Instrumentazioa egiaztatzea	4914		
8	1	CU.DEXGA.089 - Saneamenduko lohi deshidratatuak kontrolatzea	4914		
9	1	CU.DEXGA.040– Hornidurako lohiak kontrolatzea	4914		
10	1	CU.DEXGA.011 – Zadorra sistemaren egoera	9828		
11	1	CU.DEXGA.316 - Aktiboagatiko gastuak (Aktiboen Kudeaketa)	9828		
12	1	CU.DEXGA.140 – SCADA komunikazioak	12978		
13	1	CU.DEXGA.210 – SCADA ekipoen datuak	11088		
14	1	CU.ST.022 – SCADA neurketak	10458		
15	1	CU.QLIK.001 – Qlik-erako beharrezkoak diren datuen ingesta	99792		
16	1	CU.RDOC.001 – Dokumentu-biltegia	83160		
17	1	CU.OPD.001 – Open Data datuetarako sarbidea	30996		
19	Urtebete	Mantentze-lanak (euskarriak eta lizentziak) 2027/07/15etik aurrera			

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:



I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuaren banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

Bi



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = \frac{\quad}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < B_i \leq 0,8 \times BM$

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{max})}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

1.- Exekuzioaren memoria tekniko eta metodologia..... 25 puntu

- Proposamen tekniko kontratuaren xedari egokitzea 15 puntu.

- Gauzatzeko metodologia.
- Lan-plana.
- Erabilitako tresnak eta teknologiak.
- Zerbitzuaren kalitatea eta arauak betetzea.
- Komunikazio-plana.
- Irtenbidearen ikuspuntu zehatza.
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza.

- Zerbitzua ematearen irismena 10 puntu.

- Zerbitzuen deskribapena
- Zerbitzu-mailak.

2.- Kontratura bideratuko diren baliabide teknikoak..... 25 puntu

- Kontratuari esleitutako baliabide teknikoak eta antolakuntzakoak..... 20 puntu

- Taldearen esperientzia datuaren gobernantza-proiektuetan
- Taldeak uraren zikloko proiektuetan duen esperientzia

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Taldearen antolaketa..... 5 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerak daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 unitatetan baino gehiagotan gaitzitzen duten eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkeztzen badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertze arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

ESKAITZA BAZTERTZEKO EZ-BETETZE TEKNIKOAK

- Baldintza tekniko berezien pleguan eskatzen diren ezaugarri teknikoak ez betetzea.
- Proiektuari esleitutako teknikariak eta beharrezkoak diren baliabide teknikoak ez eskaintzea, plegu tekniko BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK deritzon puntuko A apartatuan ("Lantaldearen osaera") eskatutako erantzukizunen, eskakizunen eta esperientziaren arabera (baldintza tekniko berezien plegua).
- Dokumentazio teknikoaren apartatuan eskatutako dokumentu teknikoren bat ez aurkeztea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Epeak ez betetzea:

1. Baldintza teknikoen pleguaren mantentze-lan zuzentzaileekin lotutako gorabeherak konpontzeko epea ez betetzea.

Zigorak: Kontratuaren prezioaren % 1, hilero eta garaiz kanpo konpondutako gorabeheren % 10 bakoitzeko.

Kontratua suntsiaraztea: Aurreko zigorrak batera hartuta kontratuaren prezioaren % 10era iristen direnean, BBUPk kontratua eten ahal izango du.

2. Baldintza teknikoen pleguaren bilakaeraren edo egokitzapenaren mantentze-lanekin lotutako aldagetak ezartzeko gehieneko epea ez betetzea.

Zigorak: kontratuaren prezioaren % 0,5 atzeratutako aste bakoitzeko.

Kontratuaren xede den zerbitzua gaizki betetzea

1. Entregatzea BBUPk zehaztuen teknikoen arabera eta erabilera-kasu bakoitzerako planifikatutako amaiera-dataren arabera garatu ez direla uste duen garapenak.

Zigorak: Kontratuaren prezioaren % 1, garapenak behar beste egiaztatu gabe igarotzen den aste bakoitzeko.

2. Informazioa edo datuak galtzea, eta kontratuak irauten duen bitartean landutako proiektuetan gordetako informazio sentikorrerako sarbidea urratzea.

Kontratua suntsiaraztea: Datuak babesteko araudia betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

3. Kontratua indarrean dagoen bitartean eskuratzen den informazioari buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzea.

Kontratua suntsiaraztea: Datuak babesteko araudia betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

Kontratua gauzatzean betekizunak ez betetzea

1. Adjudikaziodunari zor zaizkion arrazoiengatik erabilera-kasu bat entregatzen ez bada, eskaintako zenbatekoaren % 80ko zigorra ezarriko da.

2. Epeak ez betetzea: Erantzuteko denborak eta zerbitzu-mailako akordioak behin eta berriz ez betetzea hutsegite larritzat hartuko da. Zerbitzuaren funtzionamenduari kalte egiten dioten atzerapen esanguratsu edo luzeen kasuan.

3. Eskaintzan aurkeztutako lantaldearen osaera ez betetzea, eskatutako gaitasunari eta esperientziari dagokienez, hutsegite larritzat hartuko da.



M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Kontratua suntsiaraztea: BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

Zigorrik izan bada, ateratzen den zenbatekoa emandako fakturaren zenbatekotik deskontatuko da.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

SPKLren 309. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta, ez dira aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatu bitartean kontratuan ezarritakoen aldean benetan gauzatutako unitate-kopuruan soilik gertatzen den aldaketa, baldin eta gastua ez bada kontratuaren prezioaren % 10 baino gehiago handitzen.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

BAI

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Plegu teknikoan adierazitakoa.

FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da baldintza tekniko berezien pleguaren 15. apartatuan adierazitakoa, hauei buruzkoa:

1. Konfidentzialtasun osoz gordeko dira zerbitzua emateko erabilitako datuak eta dokumentuak.
2. Kontratu honen xede diren zerbitzuak ematearen ondorioz lortutako informazio konfidentzial oro hirugarrenei ez zabaltzea eta haien onurarako ez erabiltzea, arreta berezia jarrita indarrean dagoen Datuak Babesteko Lege Organikoan.